

# Antxoaren ingurua

Agustin ZUBIKARAI

Otzaratxu bat, otzaratxu bi,  
arraña dator portura beti...

Ori da kantu zarrak diñoena,  
ori da gure itxas errietan sinistuten dana be.  
Eta ori da mariñel errietako premiña,  
ori baita arrantzale errien poza ta naigabea.  
Arrantzako erak zearo aldatu dira azken irurogei urtetan.  
Arrantzaleak eurak aldatu,  
itxas tresnak egokitu,  
txalopak barriztu,  
gizonen indarra motorrenaz trukatu,  
belaen zeregiña Diessel'en sartu,  
arrantzuak ugaritu,  
bizi modua erraztu,  
arriskuei abaguneak billatu...

Lengo arrantzako bizi-bidea, jokaera eta oiturak,  
erriaren esaera zarretan gogoratzen dira:

«Antxoarik ez da itxuraz arrantzaten, santuak kaleetan aizetu edo oreatu aurretik».



Danok dakigu Aste santua itargiaren goraberakin da-  
billala. Ez dala egun berezi bateko jaia, ibilkorra baiño.

Aste Santuan, Eguen santuz, beti itargi bete.

Eta itxasoetako urak, uren berotasunak eta giroak ze  
ikusi andia dauke itargiagaz.

Gizonak be bai. Leku batzutan «pasku txalak». Itxas-ertzean «zimarroiak» edo «marraxuak» euren zabarkeriak autortzeko.

Bai eta egarria, soñaren egarria asetuteko be.

Itxas ertzean sagardaurik geien saltzen zan astea, sardiña denporetan asko salduta be, Aste Santua izaten zan.

Arrain batzuk, txitxarro eta berdela esateko, antxobiagaz ibiltzen dira. Orma lakoxea egiten dautse antxoa bankoei, pilloei, euren gainean jarrita. Origaitik antxoa sasoiaren aurretxoan txitxarro eta berdel ugari arrantzaten da. Alaxe komeni be, antxoak azalera igo dagian edo ta bere bidean izutu barik jarraitu dagian.

Antxoa agertuko ba da, nai ta ezeko etsiten dabe mariñelak beste arrain orreik kentzea.

Arrain guztiak dira antxoaren arerio. Txikia dalako, edo besteak baiño bigunagoa dalako.

Zerbaitegaitik esaten da: antxoa txikiak baiño arerio geiago.

Antxoaren izena, zientzi izena, *Engraulis encrasicolus* da. Beste batzuen deituetan *Clupea encrasicolus*, edo ta *Engraulis meletta*.

Erdaldunak anchoa, bocarta, abocarte, sardineta, boqueron, jouba, anchova... Bakoitzak bere izena. Frantze-

tarrak Anchois. Guk euskaldunok antxoa, antxua, albo-kartia, bokarta.

Taldeka ibiltzen dan arrain mota da. Sardetan biziten da, moltsotan, askotan milloika antxoaz osotuta. Egaluzen, atun, egalabur eta marraixoentzat janaririk atseginena.

Origaitik gure itxas ertzean agertzen danetan, beste arraiñak be ugaritu egiten dira.

Gero Maiatza.

«Etorriko da Maiatza jango doguna lebatza».

Ori be esakera da. Eta esakerak ez dira oiñarri barik sortuten. Ez dira bein-beingo gauza bategaitik erriagan sartzen.

Gero San Pedro...

San Pedro lekeitiarra, arrantzalia, ez Mendexakoa.

Lekeitio'n San Pedro'ri «kilinkalia» eragin, itxasora begira burua makurtuta euki, itxas-uren lurruna arnastuteko eran, itxasoak bedeinkatu dagiazan; Ondarroan Kofradiak urteroko illeta, bertako ildakoen alde, ta gero «Saliña-Saliña» ta erri dantzak.

Gazte eta zarren jaiak.

«San Juan nekez etorri ta arin jua.

San Pedro gizonak ardaia edateko».

Gure arrantzaliak ur andiagotara joan bearra agertzen dabe.

Antxoaren diruak eta irabaziak ogi-zorrak eta dendetako koskak ordaindu izan al ba ditu, orain Santoña al-

dera joan bear, egaluzeari, atunari, bidera urtetera, ne-  
guartekoa irabazi al izateko.

Ega luzea, atuna, diru emolea da, arrantzatu ezkeru.  
Baina lengo ontzi, tresna eta beladun txalopetan ezin ibili  
bakoitzaren kaiaetik. Eta mendebal aldera jo bear. Arrain  
orren bidetara urreratu nai. Origaitik arrantzaliak San  
Pedro jaia igaro eta Andra Mari jaiak arte «Santoña Ame-  
riketara» joaten ziran, beladun txalopa andiekaz edo ta  
tximinidun lurriñezko bapore txiki eta arriskutsuetan.

«Santoña Ameriketak» ba euken umeentzako alako  
misteriozko deitura bat. Toki batzuetan gure amak Pa-  
ris'tik ekarten zituen euren semeentzako neba arrebak.  
Itxasertzeko ainbat tokitan «Santoña Ameriketatik».

Baina toki orrek ba eukan bere alderdi illuna be.

Udako galerrenak, sargoreak eta bero larriak sortu  
eragindako ekaitzak, zotin eragiten eben gure itxasertzean.  
Estutasun larriak igaro eragin gure kale kantoietako etxe  
zarretan eta famili beartsuetan.

Goizean etxekoandere ta gabean alargun, sarri gerta-  
tu zan gure arrantzale etxeetan.

Gogoratu 1912 garren urtea.

Garmendia bertsolariaren bertsoetan geratu zan ordu-  
ko ondamendia:

Notizi triste ori  
giñan adituak,  
egun amasei Bermeoko  
ba zirala ituak;

iru ondarruatar ta amasei  
Lekeitiokuak,  
Elantxobetik zortzi  
ba dira naikuak,  
denak gure anaiak  
Kantabriakuak.

Askorentzat Santoña Ameriketa, dendetako zorrak ordaindu ta umeak loditzeko atun tato emole ordez, alar-guntza edo ta umezurtz aro baten oiñarri izan zan.

Gero, udazkenean... Santa Katalina noiz da? Besigutarako goiz da.

Etxeetan eta bodegetan eta karkabetan, antxoa txikiz ainbat tretzatako amuak egunero bete bearra, gizona itxasorako urteera egokitzeko. Ez egoan orretan alogerik. Arraiñak ordainduko eban itxaso eta leorreko lana.

Eta gizonak eguneroko urteera txarretan, mare gorakoaren zain egon bear, kaitik urten al izateko, nai zan tokitara be joan ezinda, tretza mordoak treetzaretan arretaz tolestuta esku baten, bestean beso-gaiñetik dindilizka tunbixak, mundillak, tretzak uretan zabaltzen ziranean euren ertzei lotuta lagateko, norberak billatu ta besteak be kontu euki egien andik igarotean.

Egualdiak eta mareak agindu bear zein arrain-kalatarra joan. Barruko kala, ixkote edo nora.

Neguko arrantza neketsua zan. Eguraldi otz eta garraz, itxas giro larri asko igaro eragiten zituna.

Oraintsuarte, itxasertzean, antxoa sasoi familiaetako arrantzua izaten zan.

Ez bakarrik ontziak, txalupak eta treiñeruak eta motorrak eta baporak familiko lez erabilten ziralako.

Sasoia urreratuz batera danak antxoa agertzeko zain, larri.

Dendariak gaiñezka lez, zorretan emoten gogaituta, nai ta bezero onak izan.

Ogidunak «koska» makillaei, olei, egunero koska bariak ataraten asarretuta. Koska makilla edo ol zapala izaten zan ogidunen kontularia. Zorretan ataraten zan ogi bakoitzeko koska bat olari ataraten jakon.

Negu luzea gertaten ba zan, zenbat koska! Ogikiña estu, ta beregana joaten ziran etxeko andra koitaduak «miseria» joten, baiña ala ta be etxerako ogia eskatzen joan bear. Eta oraindik gatza emon bear eskabideari, ogidun berberari «errespetua» sartu nairik.

—Ez egizu olako arpegirik ipini, negar gurea emoten dozu-ta!

—Negar egingo ez dot ba, zeuei jaten emotearren neu kartzelara eroango nabe ta?

—Origaitik?

—Urunik ez da ordaindu bear ala?

—Ene ba! Orreik barruko gizonok, gizonak baiño gantzeruak geiago, ez dakie itxasoa zer dan?

—Jakin ez? Geiegi.





—Eta jakinda ezin eutsi?

—Or dago kakua. Eutsi... ta itxasoak emoten ez ba dau?

—Ene ba! Gure Jaungoikuak ori egin? Estutu bai, baiña itto eragin ez arek. Igaz be, nekez, baiña kendu neutsuzan koskak eta akatsak be. Antxoa ez ba da, atuna be etorriko al da!

—Bitartean zorrak zorria egiten.

—Ixilik egon zaitez, asgurarik sortu barik... Oindino beronek lotsatuko gaitu gu, gu zorrizto ba giñaken lez. Goseztoak bai, baiña esan be ez gero besterik!

Eta ogia, ogi biguna etxera, nai ta azal lodiagaz eskatzen zala itxuratu, barruko naigabez lortua.

Antxoa sasoia eldu ta gero ta keixuago egoten ziran famili guztiak.

Izurdak be igaroten ziran sarri, ia itxas ertza joten, aitz ondoetara sartuz, arrain billa eta jendea laster asten zan deadarka: Izurdak! Izurdak! An, an ,an... an iru, urrunago beste bi.

Oneik arnas artzeko azalera burua atara, ur parrastada luzeak gora jaurti ta barriro igari egiten, musean lez, eskutatzen ziran ta beste toki baten agertu.

Arrain txikia urrean ebillan ezaugarria izaten zan ori.

Talaixerua be, itxas-erri guztietako mendi gaiñean egoten zan talaixerua, bere begiragailluetatik begiak galdu bearrean ibiltzen zan, itxasoan baltzunerik edo «gorri-rik» igarten ete eban.

Eta talaixeruak sua egiten eban talai egal bat edo bestean, arraiña zein alderditan ebillan jakin erazteko.

Antxoa sasoia asia zan edo gaiñean egoan.

Eta txalopak eta motorrak eta baporak, antxoaren lengo agerpenak oartuteko zain egoten ziran.

Orrela itxasora antxoa naian urteten asten ziranean... arnasa lez artzen zan, itxaropenez betetako arnasa...

Alako baten be!

Ez egoan, gaur lez, itxas irratirik, bakoitzak ze arrantzaten eban eta zekarren aurrez adierazateko.

Itxasoan ebiltzanak ze ekarriko jakitera asko urreratzen ziran, jakin naiari eutsi ezinda, itxas aurreko bidera edo ta portu aurreko mollara. Orrelaxe egunetan.

Alako baten be an asten ziran umeak zarataka:

Paulo'ren motorra ia noiz ondora joango dator, bete-beteta!

—An datorrena Millan zarrarena ez da ba?

—Nungo Millan zarrarena? Urdiña ez da ba or datorrena?


—Emendik igarri bai?

—Igarri ez, urdiña barik zuria da ta? Ganera Millan'en motorraren «guardakalora» datorren onena baiño jasoagoa da. Ori Anton Buru'rena ez da izango?

—Apostua nai dozu ezetz?

—Gaur eskolara barik fabrikara joan bearko gara.

—Dirua irabaziko dogu buru kentzen.



JESSE 84

—Igazkoagaz ez zara gogoratzen? Tiña bateri burua zeñek lenago kendu, ogerlekua agindu eban gure ugazabak eta estropada egin gendun eta geuk irabazi.

—Bai «maistresiak» tranpa egin eutsuelako.

—Zeñek esan dau ori?

—Zueri arrain bizi-bizia emon eutsuelako buru kentzeko, ta guri egun bi eurreragokoa.

—Ori aitzakia da.

—Gañera, zuen arraiña andiago zan, gurea baiño.

—Orrek zer dauka ze ikusi?

—Euki ez?

—Lantzo! Ez dakizu tiña (upel) bete, beti be tiña bete dala?

—Iño! Matzakuko parolak baiño argi geiago daukazu kaskarrean!

—Gitxi gora beira amar arrua ez dira izaten ba an sartzen diranak?

—Ez dakizu zenbat eta arrain andiago, buru gitxiago batzen dirala kentzeko?

—Pixua pixu da.

—Eta zeuk sinistu nai ez ba dozu be, burua buru.

Barrako sarreran txalopak agertzen asi ordurako, erria jakitun geratzen zan arrain eguna izango zan edo ez. Eta an agertu ta bereala joten eben Kofradian kanpaia, geroago turruna, laster zala arraiñaren salerosketa egiteko ordua adierazoten.

Lenengotan antxoa moltso andietan agertzen da. Zidar bitsa lakoa lagaten dau ur gaiñetan, azalean. Onelakoetan, itargi betean gitxiago arrantzaten da. Argiak kalte egiten dau arrantzarako.

Geroago beste era batzuk gertaten dira: manjuba, ardora eta abar.

Denporak berotu ala, antxoa azalera agertzen asten da, eta orduan lengo txalupak «saretarako» gertuten ziran.

Ez da bardin antxoa saretan arrantzatu, edo ta manjuba, ardora eta abarretan treñekaz artu.

Eta salerosketak be ez dira bardiñak.

Saretan arrantzaten dana, bana-bana sarearen mailletatik atara bear izaten da. Ortik, erderazko berba nunbait, «despiskia» deitzen da. Erderazko despescar.

«Manjubetan» eta «gorrian» edo «blankuretan» edo «ardorean» arrantzaten dana, inguratuta arrantzaten da, pilloka.

«Saretako» arrantzan, sareen maillak be zabalago izaten dira, treñenak baiño, eta origaitik beti izaten da arrain lodiagoa an geratzen dana.

Saretakua odoluztuta etorten da portura; manjubakoa, treñean artua, ittota.

Saretakuak lan andia emoten dau arraiña askatzen, mailletatik ataraten, «despiskaten». Bestea, sarabardoekaz otzarak bete ta kotxetara, ia txalopatik zuzen.

Gaiñera saretakoa osorik atara bear izaten da mailletatik, bururik galdu eragin barik, «maluzkatu» barik.

Sare denporetan gabetan artzen da arraiña.

Arrain taldeak gitxi gorabera nun egon leikezan igarri, gaba egin ordurako ara joateko eta eltzeko orduak neurtu ta joaten ziran gure zarren txalopak.


Toki egokietan sareak zabaltzen asten ziran. Bi edo iru lenengo, ikusteko ia arraiñik ba ete ebillan eta egon ezkeru bertan zabaldu danak edo bestela aldara egin. Baiña ezin asko, gaba laburra izaten dalako.

Ontzi bakoitzak eroaten zitun 15 edo 20 sareak zabaldu eta itxaron bear gau guztian.

Sareak goitik bera luzatzen ziran. Origaitik bealdean berunak eukiten zituen, euren pixuagaz sareari zuzen eusteko. Goian kortxoak, berunen pixu eta arraiñaren astuntasunari eutsi al izateko aiña.

Bein egun sentia ezkeru, arraiñez beteta edo utsik, zelan gertatu ala jokatu bear, sareak jasoten asten ziran. Iñoiz sarerik ezin billatuta etxera etorri ziran, arraiñaren pixuak ondora eroanda, edo ta itxas barruko zirri-zarrak tatarrez eroanda, edo ta beste ontziren batek ganetik igarrotean etenda lagaten zitulako. Beste batzutan uste bako udabarriko galerrenak sortu ta iges egin bearrez aurkitzen ziralako.

Bein sareak itxasoan zabaldu ezkeru, al eben tokietan etzaten ziran gizonak, «pael» gaiñean edo lo konkorrean orduak egiten zituen. Geienak errosarioa be itxasoan erre-zaten eben. Eta sekula ez ziran portutik atarako, oiturazko ziran Aitagure edo ta Salbea otoiztu barik. Kanporakoan lez barrurakoan be. Edo mariñelak esaten dakien lez, at'ako bandan lez erriko bandan be.



Saretako arraiña mailletatik askatuten, «despiskaten» orduak igaroten zituen portuan, barruan barrukoak eta etxetako andra eta umiak be txalopetara joan da, edo ta sareak molla egaletara atara eta sarea bere zabalera guztian bear ziran lagunak artu ta lanean ekiten.

Antxoa, otzaretan batu-ala, Kofradi aurrera eroaten zan. Bakoitzaren otzarak an zabaldua ipini, erosleak arraiña ikusi, aztertu, otzara barruetan eskua sartu ta azpikokgora arraiña erabili ta jakiteko zelakoa zan bakoitzak eka- rri eta gero erosi edo ez ze komeni ala jokatzeko.

Ontzi bakoitzak bere kolore bereziekin margotuten zitu- tun otzarak, eta origaitik laster jakiten zan otzara bakoit- tza zein txalopetako zan.

Txalupa bakoitzak dana gertuten denpora asko bear izaten eban lez, tarterik tarte egiten ziran saltzeak, bakoit- zaren pilloari txaloparen izena edo taldearen zenbakia ipi- nita.

Orrela, saldu-ala, erosleak kaleko burdietara jaso ta lantegira, fabrikara bialtzen zituen erositako otzarak. Arrain erabilketa, Kofradi aurrearte, arrantzalien kontu- rako izaten zan, eta bein saldu ezkerero eroslearen gain.


Arrain saltzea, txalopa guztiena, Kofradian egiten zan. Galerazota eguan txalopatik erosleari zuzen saltzea.

Zein lenengo kaian sartu, a izaten zan lenengo saltze- ko, eta gerokoak bardin, sartu alako erreskadan.

Kofradiak saltzaillea eukiten eban, «benterua».

Areto andi baten egiten zan saltzea. Inguru guztian, errubera baten gizan, erosleentzako jarrilekuak. 50 inguru.





111 h.  
111 h.

Erosle bakoitzak, bere besua ipini bear eban eskudelean, bultzagailu bat. Onen indarra erdiko txabola batera joaten zan eta an agertu bultzatutako pelota, zein jezarlekuetik bultzatua zanaren zenbakiagaz. Orregaz egiten zan tratua. Beti be, askotan, salneurri baten iru-lauk bultzatu arren, erosteko eskubideduna lenengo agertzen zana izaten zan, eta arek saltzeko egoan dana erosi ezik, bigarren agertzen zana sartzen zan eskubidedun, eta bardin urrengoekaz.

Saltzaillea, maiburu baten jezarrita egoten zan, eta bere irizpide oneko prezio bat aukeratuta, beti be egin leikean baiño gorago, onela asten zan:

Jaunak: Antxoaren saltzea egiten atera nua. Lenengo onetan amazortzi txalopen arraiñiak salduko dira, banan-banan. Zenbat txalopak saldu naia jakin eragin, ainbeste saltzen ziran.

Lenengoa: «Itxaso izarra» txaloparena. Ogei otzara daukaz. Lau peseta kiloko, 3,95... 3,90... 3,85... 3,80... 3,75... 3,60... Eta orrelaxe joaten zan, erosleren batek bere boleari, peloteari, bultz egin eta zarataka erdiko tresnan agertu arte.

An egoten zan iturri antzeko baten batzen ziran bultzatutako guztiak, eta ango arduradunak iturria zabaldu ta lenengo agertzen zan zenbakia ikusi ta eroslearen izena agertzen eban: Iriondo, Guenaga, edo zein zan arena.

Gero lenengo agertzen zan erosleak dana nai eban edo zatiren bat bakarrik erosten eban jakin eraso eta dana ba zan, beste ontzi batena saltzen asiko zan, barriro lengo diruak oiñarriztat artuta. Zatiren bat bakarrik erosten ba eban ekiten eutsan: Saltzen jarraitzera guaz.

Eta len geratutako salneurritik barriro bost zentimoka beratzen joaten zan: 3,55... 3,50... 3,45... 3,40... Eta barriro batek bere peloteari bultz egin eta zarataka entzuten ixildu, agertzen zan erosleari zenbat nai eban itaundu... eta geratu eban salneurria paperean ipini, sailla amaitu arte.

Kofradietan erosten dan arraiña, astean bertan ordaindu bear izaten da. Au da, eguenetan sarratzen dira kontuak eta zapatuan ordaindu bear.

Bein erosi ezkerro, bereala burdiei oska asten dira, zeinek eroan nai lantegira, ainbat arifien an lanean asteko eran.

Antxoan lan egiteko esku ugari bear izaten dira. Zarranak, gazteenak, umeenak, danak.

Oraintsuarte, eskolak egonarren, ume asko ez ziran joaten eskolara, lantegietara baiño. Ia amar urteko umeak eta abar. Ijitoak be ba ekien esku premiña egoala ta itxasertz aldera urreratzen ziran sasoi onetan.

Lan onetarako oiñetako onak bear izaten ziran, lantegi orreitan kendu bako bustitasuna egoten dalako. Oletzko traskuak izaten ziran onenak. Eta gerrirako sakuz eta ziraz edo beste antzerako amantal bat. Naiku izaten zan ori.

Sartu gaitezen lantegi baten.

Gatz ur usaiña. Gaitz siku billatzea.

Onelako lantegietan ur asko bear da, bai gatz-ur edo salmuerak egiteko, bai arrain garbiketa eta abarretarako.



Arrain egunerako gertuta, lantegian sartuagaz batera, ate aurrean, andrak biña biñaka gertu egoten dira arrain otzarak burdietetatik atara ta olezko mai luze baten otzara orreik utsitzen jarduteko.

Mai gaiñean, beste emakumeak, gatz-emoleak, beriala asten dira maietan ustutakoari gatz mordoak jaurti, eta ondo nastuten, aspikoz gora erabiliz, eta mai-orreitatik al-bora eroaten jakoezan upel edo tina utsetara jaurtiten da, aukera barik, nastean, itxasotik datorren lez. Eta bein bete ezkeru upel edo tina orreitara gatz-ura sartzen da, arraiñak berak berez daukan uragaz batera an lagata.

Orrela, lenengo egiten dan lana gatz emotea izaten da.

Gero, gatz emondako arrain ori, buru-kentzeko maie-tara ataraten da, kopalet txikietan eta ume txikiak izaten dira kopalet orreik erabilten dituenak tiñietatik maira arra-in eroaten. Burua beian ganera jaurtiten da, eta arraiña kopaletetara.

Onetan andra, agure, ume ta danak nastean ekiten dautse banan-banan antxoari burua kentzen.

Burua kentzea ez da burua biurtu eta ebagitea. Antxoari burua kentze jatorra egiteko, samatik oratu, sama eten eragin eta barruko urdail eta guzti gora ten egiñaz buru ta barrukoak batera ataratea izaten da, lepoan barik, sabel goian eukiten daben puntatxoa (pikua) lagata.

Italiarrak, arraiña erostean, asko begiratzen dautse piku orreri, orrela ikusten dalako sabel-aldia eta papar aldia ebagi barik, osoan laga dala.

Bestera, biurtuta egin ezker, barruan geratzen dira gibel, urdail, eta beste geigarriak eta arraiña guritutean kendu egin bear izaten dira, garrazkera lakoa eukiten dabelako.

Origaitik sarri ibiltzen dira maistresak arraiña obeto garbitzeko deika, asarre.

Buru kentzailleak egiten dabe lenengo sailkapena be, neurriari buruzkoa. Begiz egiten da ori. Kopaletak egoten dira maian, buru kentzailleen erdian, neurkin ezbaridiñeko arraiñak buru kentzean aukeratu ta bereiztuteko. Arrain andia, geienetan, latetan sartzeko izaten da; txikiagoa, «barrilletarako», upeletarako.

Orrela, burua kendu ondoren, arrain ori beste tiñetara eroaten da eta areitan laga, «enpakatzailleak» eskatuala euri eroateko.

Zeregin ori egiten esku oneko andrak egoten dira. Oneik geitxuago dakienak izaten dira, edo ta arraiñean oituago diranak.

Andra oneik arraiña latetan sartzen ekiten dautse. Geienetan arruko latetan. Lata bakoitza neurri bardiñeko arraiñez bete bear izaten dan lez, andra bakoitzak bere neurriko kopaletetik atara bear izaten dau arrain ori, eta tarteetan neurri orretakoa ez dana, aldebanatu, beste barentzat.

Geienetan iru sailkapen egiten dira. Andiena, andia eta koskondua edo orrela zeaztu leike an erabilten dan I, II eta III barrakoa, batzuen esanetan, eta beste batzuetan II, III eta IV.

Asieratik, lata utsari azpian gatz moltso txiki bat ipinten jako. Gero antxoak bira-biraka ipini, etzanda, buztnak erdira begira eta samak egaletara. Orrela illara bakoitzaz ipini ondoren, gatz aire bat, eskukada txiki bat zabaltzen da illara orren gainean eta bere gainean bestek osotzen dira, beti be gatz kontu orregaz arduratuta, lata bakoitza bere neurrian lagateko bear diran illarak edo erreskadak ipini arte.

Antxoaren sailkapena bere lodiera edo luzerari buruz egiten dan lez, 10/12 kiloko lata bakoitzean, arruko lata deitzen danetan, akats asko barik antxoa kopuru au sartzen da:

Andienetan: 28 illara betik gora, illara bakoitzean, zabalean, 9 antxoa sartzen dirala. Beraz, lata bakoitzeko 252 antxoa.

Andietan: 30/31 illara, bakoitzean 12/13 antxoa sartzen dirala. Guztira 360-380.

Koskonduetan: 33 illara, bakoitzean 14 antxoa. Danetara 462.

Laugarren maillakoetan: 35 illara, bakoitzean 16, danetara 560 antxoa.

Esan bear da lata bakoitzean ainbeste sartuarren, ori ezin egin izaten zala egun baten, laten neurria baiño ainbeste antxoa (gordinean) gorago geratzen diralako. Eta bururarte bete eta gero lata orreik bagoietan ipinten dira.

Bagoiak deitzen dira beteta gero lenengo beian gainean ipini, iru lerroketan, bakoitzean amaika lata, gero oletzko tapa lodi bat (prentsako tapa) bakoitzari sartu, aren

gaiñean egurrezko taku lodiak ipini ta euren gaiñean ol zabalak, ol zabal orrein gaiñean beste illara bardiña ipinteko, era bereko taku, eta abarrez. Eta irugarren edo laugarren ipinten dan illararen gainetik, barriro ol zabalak ipinten dira euren gaiñean pixu ugari ipini al izateko, bai arri andiak, edo zementuz eginiko 25/30 kilodun blokeak eta abar.

Orrela latetan sartua dan arraiña bere ur eta koipeak jaurtiten joaten da eta zapaltzen. Egunetara tokia geratzen da eta barriro bete bear izaten dira latak, lengoen gain, neurriz ondo geratzeko.

Urte batzuk dirala, lan au erraztu egin zan. Orretarako lata bakoitzean, gurituta gero ondo geratzeko aiña arrain illaretan ipinten da. Len esan doguzan illarak ain zuzen. Asiera baten lata baiño gorago geratzen dira, baiña ez jausteko, latei, geigarri lez, euren neurria baiño pixkabat estutxuago diran samak ipinten jakoez. Oneik latazkoak izaten dira edo ta plastikaskoak. Sama orreik arraiñari pixupean ondo eusten dautse eta orrela egitada baten amaitutzat laga leiken aiña arrain sartzen da lata bakoitzean.

Orrela ipinten dira len esan lako bagoietan. Pixuz gaiñezka ipini ta beti kontuan eukiteko da latak gatz-ura euki dagiela barruan. Zeregin ori lantegiko arduradunen kontura geratzen da. Gatz-ur barik, arraiñaren koipea oritu eta garraztu egiten da eta siku usaiña artu. Pixurik eza be ez da ona, arraiña ariñegi elduten dalako, bere usain eta guritasunik artu barik.

Latarik ez da sarratuten, tapaz itxitzen, iru illabete inguru bagoietan euki arte, eskatu leikeen ardura eukiaz.



Orduan, gaiñean tokaok ipinteko eta indarrari eusteko ipinten jakoen olezko tapa lodia kendu, eta paguzko me bat sartzen jakoe, aurrez lata bakoitzaren gaiñea gatzbarriztu ondoren, eta latak artu leiken gatz-ura jaurti ondoren, sarratuten dira. Jakingarri da, olezko tapa me orren eta gero latak daroan tapa bitartean aizea artzeko lako unetxoa laga bear izaten dala, eta ori salmuera zaintzeko izaten da.


Arruko latak egiten diran lez, arru erdikoak be beteten dira eta kilo bikoak, baiña oneintzat arrain txikiagoa bear izaten da.

Al dala arraiñari egunean burua kendu eta latetan sartu edo tolestu edo enpakatu bear izaten da. Egunean sartutakoa dizditsu eta izartsu geratzen da. Bein bigarren eguna ezker sartzen dana, narrutzen asia joaten da, au da, azala urratzen asia.

Italiarrak, arrain onen merkataririk andienak, egun bereko arraiña ez dana, gitxiago ordaintzen dabe. Euren esanetan «peche ofuscata» izaten dalako. Italitik kanporako beste merkatuak ez dira ain estuak izaten onetan, batez be arrain ori fileteak egiteko edo olibak beteteko eroaten ba dabe.

Buru kentze lanetan ordurik ez da egoten. Ortakoak buru kentzea amaitu arte jarraitzen dabe, egun berean kendu leikela jakin ezker edo ta biaramonean arrain barria etorriko dan itxaropena euki ezker.

Zetan esanik ez dago arrain joaldietan, fabriketan egoten diran upel, aska eta gordeleku guztiak beteten dirala, eta orduan ezin atara izaten dala italiarrak nai izaten daben aiñako arrain freskurik.



JESS-85

ANTY

ONDARI

Latetan sartzen ez dana upeletan, barriletan sartzen da.

Upelak, geienak, gaztain egurragaz egiñak izaten dira. Geienak Errioxa eta Naparroa be aldetik erosten dira, baina errioxarrak eurak Asturias eta Leon aldeko gaztañadietan egiten dabe euren erosketa.

Lantegi askok, gazitu utzekoak, ez eben eukiten urterako lagun ziuurrik, upelgillea ezik.

Oneik, urte guztia, antxoaz beteta egoten diran upelak zaindu, jarioa edo eriona igarten jakoenei uztaiak estutu edo barriztu, gatz ura galtzen dabenei geitu eta bide batez, uztiak konpondu edo barritzen igaroten dabe urtea. Latetatik kanpora, latarako gai ez dan arraiña, upeletan ipinten da, andik urtean filete-ginan jarduteko (antxoa serrak gertuteko) edo ta olibatan sartuta gertu eta merkatutara ataraten daben azur zuloa antxoaz betetako olibak saltzen dituezanentzat edo ta erbesteko laterri batzuetarako antxoa orea (pasta) egiteko.

Upeletan, barriletan, ez da antxoa bana-banaka illaretan ipinten, pilloka baiño. Lan orreri moñotan edo pelotatan gertutea deitzen dautse.

Au da, burua kenduta gero, esku baten, danak era baten alkartu, au da lepoak alde batera ta buztanak bestera, eta sei-zortzigaz «moltso» edo «pilloa» egin, au da, lantegiko esaeretan pelotak egin, eta upelean ipinten da, illara bakoitzeko gatza egiñaz, eta upela beteeran, bera beteko olezko tapa ipini, gaiñean arriak eta orrelaxe lagaten zan, arraiña bere denporak egiñaz guritu edo osatu arte.

Kanpora bialtzeko bakarrik sarratuten ziran upelak euren tapa ta guzti, eta askotan, erbestera bialdu ordez, inguruko beste fabrikanteen bateri saltzeko, sarratu barik saltzen ziran.

Orrelakoetan gaiñeko gatz eta taparen ordez, 17 kilo inguru kentzen ziran batez-besteko pixutik.

Antxoak upeletan sartu eta iru illabete inguru bear izaten dauz jan al izateko bearrezko diran eldutasun eta guritasuna lortzeko, eta gero atseginez jateko. Orretarako antxoa zati bitan zabaltzean azurra errez kentzen jakola ikusi bear.

Antxoa sasoian egiten zan lana orduka ordainduten zan.

Lantegi guztietan kantu otsean ekiten eutsen lanari, geienetan eleiz kantak, edo ta errietan ezagutzen diran abesti jatorretan.

Oiturazko zan arratsalde erdietan errosarioa errezatea be. Askotan aspertzen asita egozan umeei lotsa apurra sartzten eutsen orretara.

Arratsaldetan lauretakoa egin al izateko ordu erdiko atsedena emoten zan eta geienak lantegitik bakoitzaren inguruko tarte eguzkitsuen batera joaten ziran, barruko lizuntasunetik urten eta eguzki miña billatzen eben ortarako.

Lantegi askotan, etxean filetegiñarako bear zan arraiña, upeletan ordez, milla kilo inguruko zementuzko askaetan gordeten eben, baina orrek upelen jarioak eta zaintza ordezko alde ona eukiarren, gero arrain eldua atara-

teko, lan geiago emoten eban, bertatik ia pilloka ezin atarata. Ordez, lanean ebiltzanen albora erraz eroaten zan upel edo barrilla betea, an gerriz etzanda ipini eta aukeran atarateko bidea billatuz.

Onelako lantegietan ezagutzen ziran tresna eta gailuak oneik izaten ziran:

Gatza. Lodia eta fiña. Naas-maas edo parrastadan eroaten zan (granelean) edo ta sakuetan.

Gatz fiña. Latetan edo upeletan sartu ondoren arrainari egiteko.

Gatz lodia. Salmuera edo gatz-ura gertuteko.

Gatz ura, 25 gradu ingurukoa egiten zan. Noiz egiña edo gertua egoan jakiteko, patata erabilten zan. Patata azalean gelditzen zanean, gatz ura neurri onean egoanaren ezaugarri zan.

Lata bakoitzean zenbat gatz sartu jakiteko, bakoitzaren eritzira lagaten zan. Baiña gero, bein aitzakiak ipinten asi ezkerok, latako gatz geiegiak be salneurria beratzeko aitzaki izaten ziran lez, lata beteten iñarduan emakumeari alboan ipinten eutsen neurri baten bakoitzarentzat bear zana eta a banatzen ekiten eutsan geientsuena egaletan ipiniz.

Orrez gaiñera:

Arraiña.

Askak, upelak eta tiñak.

Ol zabalak eta olezko takuak.

Latak eta eurentzako geigarriak, samak.

Latak gertuta ekarten dira edo bestela azalak biribillean, azpiko taparik ipini barik. Orrelakoetarako sarratzeko makina eta soldatzeko estañu ta gailluak eta taparentzat eutsigarri izaten dan ertza atarateko gaillua.

Kopalet txikiak eta arrain otzara zapalak.

Arriak eta zementuzko pixuak.

Maiak, luzeak ba dira langilleak eskatu-ala eta aulkiak.

Gatzontziak: olezko kutxa batzuk edo ta plastikazkoak.

Gatz moltsoak apurtu edo eteteko, atxurra eta palak.

Ura eta argia.

Gatz-pixua.

Estañua eta bera erabilteko zolda-gaillua eta eurentzako su-potua. Egur ikatza.

Upelentzako uztaiak eta ultza zapalak.

Upel-gille baten tresnak.

Prensako tapa lodiak eta saratzerako fiñak. (Egurrezkoak).

Gomazko esku-zorroak eta amantalak.

Antxoa gazituaren merkatua:

Geiena, Italian saltzen da, edo italiarrak erosten dabe, gero mundu zear zabaltzeko.

Alemaniarrek arrain eldua nai izaten dabe, urte bete baiño geiagokoa, bere usai eta aorako kutsu zarra maite dituelako.

Olandarrak be eroaten dabe, baiña andik Alemanira bialtzeko.

España'n Katalunia, Levante, Castellon eta Mediterraneo ingurua dira geien bat erosten dabenak. Edo ta Zaragozaza.

Ortik kanporakua, «filetetan» gertuten dana edonun saltzen da. Baiña konserba-erdika da, eta iraupenerako ez dauka beste konserben ziurtasunik. Origaitik sei illabete igaro ezkeru, gazituten asten da.

Katalunian eta Italian, askok, lapikokoei be sartzen dautse. Orrela urtu egiten da, baiña antxoa kutsua sartuta laga orrelako janaria.

## IZTEGI LABURRA

- Abagune:** aukera, bitarte.  
**Aldara:** tokiz aldatu.  
**Aloger:** lan saria.  
**Amua:** arraiñetarako arrapakia. Anzuelo.  
**Antxoa sasoi:** antxoa aldia.  
**Ardora:** itxasoan antxoa pilloak gabean agertzen daben argitasun lakoa. Andorean arrantzatea, gabaz argitara arrantzatea da. Itargi egunetan ezin izaten da ainbestean era orretan arrantzatu.  
**Arrain kala:** arraiñak egon oi diran tokia.  
**Arrantza:** arrain atrapatea.  
**Azgura:** igortzi gura, erderazko rascazon.  
**Atako banda:** Kanporako bidea.  
**Atun tato:** atun zati.  
**Azal - Ur-azal:** ur gainea, superficie.  
**Banko - Arrain banko:** moltsoa.  
**Begiragaillu:** anteojo.  
**Bela:** ontziak aizez erabilteko euna.  
**Berun:** plomo.  
**Bolintxe:** sare-mota bat. Kanpoz ari meiago eta mailla zabalagokoa.  
**Bultzagille:** indar egille, saka-egille.  
**Egalabur:** zimarroia.  
**Egaluze:** atuna, albakora. Bonito.  
**Eriona:** tanta-zukoa, ur-galtzea.  
**Erriko banda:** errirako bidea.  
**Esku-zorro:** guante.  
**Eskudela:** esku eutsigarria, pasamano.  
**Kai:** portua.  
**Karkaba:** etxe arterako toki zikiña.



**Kilinkalia:** Lekeitio'n San Pedro'ri uretara begira eragiten dautsen «erreberentzia».

**Kofradia:** arrantzaleen elkartea. Elkartearen etxea.

**Kopalet:** zeltu txikia.

**Koska-ola:** ogia zorretan atarateko bakoitzeko koska egiten eutsen esku makilla.

**Koska makilla:** ogia zorretan atarateko makilla.

**Koskondu:** zerbait azia, egina.

**Galerrena:** Sargoreak ataraten daben ekaitza.

**Gantzeru:** «sacamantecas».

**Gatz-aire:** azal-azal emoten dan gatza.

**Gatz-ur:** salmuera.

**Gogaitu:** aspertu.

**Gorria:** itxas berbetan, arrain multsoa, manjua.

**Gosezto:** beti gose dana.

**Guritu:** gertu, osatu, jateko egokitu.

**Ijito:** motxaillea, gitanoa.

**Illeta:** eleizako illen aldeko eleizkizuna.

**Itxas-ertz:** costa.

**Izurde:** erderazko tollino. Gizonei be esaten jakoe, irriz.

**Izutu:** ikaratu.

**Ixkote:** arrain toki edo kala baten izena.

**Jario:** Eriona. Ur galtzea.

**Lantzol:** erderazko aguja, relanzón. Ganorabako mutillei esaten dautse deitura au.

**Lurrin:** erderazko vaho.

**Lurrun:** bapora.

**Mai estresa:** arrain lantegietako arduradun emakumea.

**Maluskatu:** edozela erabili, estutu. Estropear.

**Manjuba:** arrain moltsoa. Manjua.

**Mare gorako:** itxasoa gorantz doanean.

**Marraixu:** marrajo. Cailón. **Arraina:** Gizonei be esaten jakoe irriz.

**Matzaku:** Machichaco.

**Mendebal aldea:** oeste.

**Mundil:** Besigutarako aparixuak lotuta zaintzeko boya.

**Musean ibili:** uz azpian igarian egin.

**Ogikin:** Ogia egiten debena.

- Olezko tapa:** egurrez egindako txiringolazko estalkia.
- Olezko trasku:** txokloak. Oiñetakoak.
- Ondo - Intxas-ondoa:** itxas sakona, barrua, beia.
- Otzara:** zeztua.
- Pael:** erderazko panel. Txalopetan azpiko okerkera bardintze-ko ipinten diran olak.
- Sarabardo:** arraiña batu edo jasoteko erabilten dan sareko gailua.
- Sarda:** antxoa moltsoa.
- Sare:** erderazko red.
- Talaixerua:** itxas errietan, mendi gaiñean itxasoa zaintzeko egoten diran txaboletako arduraduna, begiralea.
- Tapa meia:** olezko tapa meiak, latak itxiteko.
- Tiña:** upel erdika, zabala.
- Tolestu:** arraiñak alkarren illaran ipini. Erderaz empacar (?).
- Treiña:** arraiña ingururatzeko erabilten dan sare andia. Cerco.
- Treotzara:** besigutarako aparixuak, tertzak eroateko otzara zapala. Olezkoa.
- Tresna:** Gaiki bat.
- Tretza:** besigutarako aparixu luzea, amuz betea.
- Tunbix:** itxas-ontzi bat.
- Ultza zapal:** Upelen uztaiak estutzeko ultza. Erderaz remache.
- Zabarkeri:** ardurabagekeri. Indolencia.
- Zimarroj - Cimarron:** egalaburra, ega-motza.
- Zorritzto:** zorritz betea.

## ESAERA ETA SINISTE BATZUK

- Antxoa txikiak baiño kontrario geiago.
- Antxoarik ez da ganoraz agertzen, santuak kalez kale atara barik.  
(Aste Santuari buruz esaten da).
- Antxoa. urte erdiko jakia.  
(Urte erdia arrantzaleak bere diruz ordaintzen dabelako).
- Ondarrun antxoa ta Getarixan bokarte, ainbeste alderik ez dago bien bitarte.
- Antxoak lako ziriña egin eban amak gure txikiña.  
(Ume zistrin edo ziriña gertaten danetan).
- Martiko antxobia, erdia ur eta erdia mamiña.  
(Oraindik biguna agertzen dalako).
- Apirilleko antxobia, santuen miseriordia.  
(Aste santu eta abar sartu bear dira orretan).
- Antxoa bota-botaka, laster jausiko da norbait txirristaka.  
(Antxoa ugari sartzen danean, bere ur eta mamiz beteten diralako baster ugari).
- Antxoa atsa, aberatsa.
- Edozein da arrantzale, antxoa «emen nagoka» dabillanean.
- Lapiko bete indiar jan da be, gure totolo antxoa gose.
- Pla-pla egindako antxoak lako arraiñik ez dago.  
(«Pla-pla» egindako antxoak, zabaldu eta brixiduak izaten dira).

—San Gregoriotan antxoa bere sasoi onetan. (Maiatzean).

—Antxoa adurra. (Euri ziriñari deituten dautse, Maiatzean edo udabarrian).

—Antxoa bitsa. (Euri ziriñari deituten dautse, Maiatzean edo udabarrian).

—Antxoa txikia agirian. (Norbait mutil ezaugarria agirian dabillanean).

—Antxoa buztana aidian. (Norbait mutil ezaugarria agirian dabillanean).

—San Jose lorak zenbat eta lenago, antxoa arriño.

Umeen jaiotza eta antxoa.

Etxeren baten ume bat jaiotean, itaunduten dakie:

—Zer izan da?

—Antxoa txikia. (Mutilla). Neska sortzen danean «mielga» edo beste arrain bigunen baten izena emoten da.